

TOLOSA



tolosakoingurumenzentroa

LURZORUA

EA 21 2018/2019

LRZORIA
EA-21 2018/2019

Kaixo,
Eskolako Agenda 21
proiektuan egin dugun lana
aurkeztera gatoz

Aurten
Peñascal kooperatiba
gure proiektura batu da
beraien ikuspegia ekarriz.



Laskorain
ikastola



ONGI
ETORRI!!!



Tolosaldea
Lanbide Heziketa Institutua




EA21ean 3 ardatz lantzen dira:

1



2



3

Eskolako
kudeaketaren
hobekuntza

Curriculumaren
azterketa

Herri
partaidetza



Hausnarketaren ondorioak

Hartzen ditugun konpromisoak

Egiten dizkizuegun proposamenak



Udal batzorde
honetara herri
mailan egindako
ekintzen emaitzak
ekarri ditugu

Aurten **LLRZORLIA** landu dugu!!!

“Baina ez guk bakarrik,
eskolako beste langile, irakasle
eta gurasoek
ere parte hartu dute”



HH

LURZORUA
EA-21 2018/2019



Antzerki eta eskulan
saioan gure kontsumo
ohiturak aztertu ditugu

Lurzoru mota
ezberdinak ukitu
ditugu eta lurrazpiko
bizidunek egiten duten
lanetaz konturatu
gara.



LH 1/2

LURZORUA
EA21 2018/2019

BIZITZEKO, JOLASTEKO!



- Lurzorua duen garrantziaz jabetu gara
- Porlanezko eta gune berdeko parkeak konparatu ditugu
- Gure jolasguneetako lurzorua zaindu behar ditugula konturatu gara!

HH eta LH 1/2

Hauek dira atera ditugun **ONDORIO** batzuk

- Orain naturaz gozatzeko aukera **gutxiago** dago
- Gustatzen ez zaigun gomazko **parkea** daude eskolako jolaslekuetan.

Gure **KONPROMISOA**

Landareak, belardiak
eta zuhaitzak
zainduko ditugu

Eta gure **PROPOSAMENA**

Zona **berde gehiago** eta etxe
gutxiago eraiki

LH 3/4

LURZORUA
EA21 2018/2019

LURZORU GOZOA!!!

- Bizitzeko lurzoru mota ezberdinen garrantziaz jabetu gara
- Eskualdea gehiago ezagutu dugu: baserri mundua, bertako eta garaiko elikagaiak...
- Lurzorua zaintzeko jarrera onak eta txarrak aztertu ditugu



Hauek dira atera ditugun **ONDORIO** batzuk

- Gehiegi kontsumitzen dugu eta Kontsumitzeko **ohiturak** aldatu behar ditugu
- Lurrazpiko **bizidunek** lurrari mesede handia egiten diote

Gure **KONPROMISOA**

Zakarrarik ez dugu lurrera ezta errekarara botako. Zakarrontzirik ez badago, gorde eta ikusitakoan botako dugu. Gure **txakurren kaka** momentuan jasoko dugu.

Eta gure **PROPOSAMENA**

Leku egokiak prestatu **baratzak** jartzeko

LH 5/6

LLURZORIA
EA21 2018/2019

LLURZORIA, IRAGAZKI NATURALA!



- Ura gordetzeko lurzoruarien garrantziaz jabetu gara
- Oria ibaia gehixeago ezagutu dugu eta bere ibilbidearen zati bat aztertu dugu

LH 5/6

Hauek dira atera ditugun **ONDORIO** batzuk

- Ibaiaren ertzeetan **zabor** asko ikusten da
- Zuhaitzik gabe euriarekin **lokatza** sortzen da eta lurzorua galtzen da
- Lurzorua zikintzean gu **kutsatzen** gara
- Lurzoru landaretsua eta bizia **behar** dugu

Gure **KONPROMISOA**

Zabor gutxiago sortuko dugu plastikoaren erabilpena **murritzuz**.

Eta gure **PROPOSAMENA**

Lurzorua zaintzen duten enpresei **sariak** eta diru **laguntza** gehiago eman eta larunbateko **azoka** mantendu

DBH 1/2

LURZORUA
EA21 2018/2019

ZAINDU HERRIKO LURRA

- Lurzoruaren erabilera ezberdinak aztertu ditugu
- Herriak urtetan izan duen bilakaera ezagutu dugu



DBH 1/2

Hauek dira atera ditugun **ONDORIO** batzuk

- Herria handitu egin da eta behar berriei aurre egiteko lurzoru biziak **galdu** dira, baratza gutxiago daude eta **urbanizatutako** zoru gehiago dago.
- Lurzorua **zaintzeko** beharraz jabetu gara.

Gure **KONPROMISOA**

Zakarra ondo **sailkatuta**
zakarrontzietara botako
dugu

Eta gure **PROPOSAMENA**

Berdegune **gehiago**
jarri herrian eta
daudenak **babestu**

LURZORUA
EA-21 2018/2019

DBH 3/4

HERRIKO LURRAK MUGAK DITU

Plan orokorra zer den ezagutu dugu
Herriko gune bat berritzeko ideiak landu
dugu eta proposamenak udalari helarazi
dizkiogu

ZUMARDI TXIKI



DBH 3/4

Hauek dira atera ditugun **ONDORIO** batzuk

- Tolosan, lurzoru gehiena **urbanizaezina** da, mendi lurzorua baita
- Lurzorua berrrerabili daiteke **birkalifikatu** ondoren: Larramendi auzoan egin zen bezala... Aurrera begira horrelakoak egin beharko dira lurzoru **naturala** erabili baino lehen.

Gure **KONPROMISOA**

Elikagai **naturalak** kontsumitu prozesatuen ordeztu, ondorioz plastikoen erabilera ere **murritzuko** dugu

Eta gure **PROPOSAMENA**

Bidegorria hobetu eta zabaltu. Alde zaharra zeharkatzeko ondo antolatu eta informatu.

BATxi

LURZORUA
EA-21 2018/2019

LURRA SALGAI



- Lurzoruaren balioaz eztabaidatu dugu
- Gure eskualdeko lurzoruari ematen zaion erabilerak aztertutitu dugu

BATXI

LURZORUA
EA-21 2018/2019

Hauek dira atera ditugun **ONDORIO** batzuk

- Paisaia asko aldatu da, orain naturaz **gozatzeko** aukera gutxiago dago
- **Ekosistemak** hondatzen ari gara

Gure **KONPROMISOA**

Eskolek erabiltzen ez duten
eremu berdea
berreskuratu eta erabiliko
dugu

Eta gure **PROPOSAMENA**

Herrian hutsik dauden
etxebizitzak udalak
alokatzeko
erraztasunak ematea

Lanbide Heziketa

LURZORUA
EA-21 2018/2019

Lehen aldiz **Eskualdeko Lanbide Heziketa Foroa** egin dugu Tolosaldea Garatzenen eskutik. Tolosari dagokionez hau da emaitzaren laburpena

KONPROMISOAK

- Peñaskal inguruan ibai ertzaren garbiketa gutxienez hiruhilean behin egitea
- Tolosaldea institutoan eskolaren eremuan hesiak kentzea
- Inmakuladan hondakinak ondo sailkatzea ahalik eta birziklatze tasa handiena lortzeko

PROPOSAMENAK

- Peñaskal inguruan, ibai ertzaren oinezkoen eremuan, hondakinak sailkatzeko **edukiontziak** jarri
- EA21eko urteko gaia garatzeko Udalarekin batera lan egin **erronka txikiak** egiten.
- Herritarrei zuzenduriko **sentsibilizazio** saioak antolatzea lurzoruaren inguruan eta ondoren **auzolanak** antolatu.
- Etxe zaharrak berritzeko eta hutsak berrerrabiltzeko **politikak** berriak ezarri.

Tolosaldea Garatzenek foroaren emaitzak udalari helaraziko zaio.

Denon artean
Tolosa justu, parekide eta
iraunkorragoa lortuko
dugulakoan gaude!!!

Jaso gure agurrik beroena !!